



ORIOKUDALA

Euskaraz
bizi-bizi

AKTA

Udalbatzarraren ohiko bilkura

EGUNA: 2020ko irailaren 24a, osteguna

TOKIA: Udalbatzarraren aretoa, udaletxea

DEIALDIA: Lehena

HASTEKO ORDUA: 19:30 **BUKATZEKO ORDUA:** 20:00

BERTARATUAK:

Alkatea

Anuska Esnal Oriden

Zinegotziak

Ainara Munduate Iguaran, Xabier Ibarguren Azkue, Beñat Solaberrieta Albizu, Bakarne Oriden Albeniz, Bittor Andres Alkorta, Lourdes Salsamendi Goñi, Andoni Torres Fernandez, Jon Basurko Sarasua, Amaia Gozategi Urbieto, Jose Javier Gomez de Segura Arce, Ana Prieto Merchan eta Jose Angel Iparragirre Alberdi.

Idazkari-kontu-hartzailea

Jon Carrera Jauregi

Gai-zerrenda

- 1.- Irakurri eta onartzea, egoki bada, udalbatzarraren 2020ko uztailaren 30eko ohiko bilkurako aktaren zirriborroa.



- 2.- Onartzea, egoki bada, ordenantza fiskalen eta beren eranskinen aldaketa, eragina 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera izango duena.
- 3.- Onartzea, egoki bada, aplikatu beharreko hobariak, udal-erabilera publikoko lurak okupatzeagatiko tasari dagozkionak.
- 4.- Ontzat hartzea, egoki bada, Aita Lertxundi kaleko 44. zenbakiko finkari (ondasun demaniala) jatorriz zegokion padura saneatuko lursailaren jabetza osoaren doako lagapena, eta alkateari ahalmena ematea, egoki bada, horren nahitaezko eskritura publikoa sinatzeko.
- 5.- Onartzea, egoki bada, 2020ko EUSKARALDIARI buruzko adierazpen instituzionala.
- 6.- Eskariak eta galderak.

Esan-eginak

1.- IRAKURRI ETA ONARTZEA, EGOKI BADA, UDALBATZARRAREN 2020KO UZTAILAREN 30EKO OHIKO BILKURAKO AKTAREN ZIRRIBORROA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, inork inolako oharrik egiten ez duenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira, **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

ONARTZEA udalbatzarraren 2020ko uztailaren 30eko ohiko bilkurako akta.

2.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ORDENANTZA FISKALEN ETA BEREN ERANSKINEN ALDAKETA, ERAGINA 2021EKO URTARRILAREN 1ETIK AURRERA IZANGO DUENA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Gaia 2020ko irailaren 10 eta 22ko Ogasun eta Pertsonaleko batzorde informatzaileetan diktaminatu da, segidan zehazten den eran:

1.- Diktaminatzen da **MANTENTZEA ETA EZ IGOTZEA** Izaera Urbanoko Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari dagozkion karga-tasak.

Familia ugarienezako hobariak indarrean segituko dute, eta baita ere ondoren zerrendatzen diren errekarquak:

Errekarguak.



Subjektu pasiboaren edo hirugarrenen (alokairuagatik edo erabileraren lagapenagatik) ohiko etxebizitza ez diren bizitoki erabilerako ondasun higieziei %50eko erreargua aplikatuko die Orioko Udalak zergaren kuota likidoaren gainean. Errekargu hori zergaren subjektu pasiboari eskatuko zaie eta zergarekin batera sortuko da; likidatu ere, urtero likidatuko da, kuotarekin batera.

Errekargu hori aplikatzeko, bizitoki-erabilerako higiezintzat honako hau hartuko da: katastroan etxebizitza erabileradun gisa jasota dagoen lokala. Etxebizitzaren eranskinak ere sartuko dira, erregistroan finka bakar gisa ageri badira. Eragin horietarako, bizitoki-erabilerako higiezin bat ohiko etxebizitza dela kontsideratuko da, baldin eta, zerga sortzen den datan, Udaleko erroldan okupatzaileen ohiko etxebizitza gisa jasota badago higiezin hori.

Errekarguaren salbuespenak:

- 1.- Ondasun higiezinaren gaineko zergen hobariren bat gozatzen dutenak.
- 2.- Udaleko Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren matrikulan alta emandako jarduerari atxikitakoak.
- 3.- Zergaren sortzapenaren aurreko urtean 9 hilabete baino gehiagoz alokatuta egon diren etxebizitzak (alokatuta bakarrik; ez dira sartzen erabilera-lagapenak). Honako dokumentazioa aurkeztu beharko da, salbuespena aplikatzeko:
 - Salbuespena aplikatzeko eskaria.
 - Alokairu-kontratua, behar bezala datatu eta sinatuta. Kontratu horretan agertu behar du higiezinak etxebizitza-xedea edo erabilera izango duela.
 - Alokairua kobratu izana justifikatzen duten agiriak, zergaren sortzapenaren aurreko urteari dagozkionak.

Gipuzkoako Foru Ogasunari alokairu-kontratu horien berri emango zaio.

- 4.- Zahar-egoitzatan erroldatutako pertsonen titulartasuneko etxebizitzak. Salbuespen hau aplikatuko zaio, bakar-bakarrik egoitzan sartu aurretik pertsona horren ohiko etxebizitza zenari.
- 5.- Herentzia baten parte diren etxebizitzak, titularra hil eta bi urteko epean.
- 6.- Zergaren sortzapenaren aurreko urteko azaroan edo abenduan erositako etxeak, non, nahiz eta urtarilaren 1ean inor ez egon erroldatuta, erroldatzeko tramitea egin den zergaren sortzapenaren urteko lehen hiruhilekoan.
- 7.- Legez aurreko deklaraturako eraikinetan kokaturako etxebizitzak.



- 8.- Katastro urbanoaren erregistroan bi finka independente osatzen dituzten etxebizitzak baina etxebizitza bakar modura erabiltzen direnak. Zirkunstantzia horien balorazioko txostena udal-zerbitzu tekniko eskudunek egingo dute.
- 9.- Lurzoru urbanizaezinean eta lurzoru urbanizagarrian kokatutako etxebizitzak.
- 10.- Urbanistikoki antolamenduz kanpokotzat kalifikatutako eraikinetan dauden etxebizitzak.
- 11.- Ohiko etxebizitza ez diren etxebizitzak, baldin eta urteko gutxienez 300 kWh-ko energia-kontsumoa frogatzen badute.

Zergaren sortzapenaren aurreko urtean izandako elektrizitate edo gas kontsumoen fakturak aurkeztuta frogatuko da zirkunstantzia hori.

- 12.- Zaintza pertsonalak behar dituzten mendeko pertsonen jabetzako etxebizitzak, baldin mendeko pertsona hori bera zaintzeaz arduratzen den familiarraren etxean bizi eta erroldatuta badago. Salbuespen hau aplikatzeko beharrezkoa izango da utzi den etxebizitza hori mendeko pertsonaren ohiko etxebizitza izatea, familiarraren etxebizitzara joan aurretik.

Diktaminatzen da nekazaritza-izaerako ondasun higiezinaren gaineko zergari aplikatzen zaion karga-tasa %1,10ean **MANTENTZEA ETA EZ IGOTZEA**.

2.- Diktaminatzen da **MANTENTZEA ETA EZ IGOTZEA** Orioko jarduera ekonomikoen gaineko zergaren exakziorako hainbat ahalmen arautzen dituen ordenantza fiskalean ezarritako gutxienerako kuoten gehikuntzarako koefiziente bakarra.

3.- Diktaminatzen da **MANTENTZEA ETA EZ IGOTZEA** izaera urbanoko lurren balioaren gehikuntzaren gaineko zerga-tasa eta urteko portzentajeak.

Hobariak mantendu egiten dira.

4.- Diktaminatzen da **MANTENTZEA ETA EZ IGOTZEA** trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergari dagozkion tarifak.

Indarrean segituko dute zerga hori arautzen duen ordenantza fiskalean ezarritako hobari guztiek, baina zehaztapen hau eginda:

Zergaren kuotaren %100eko hobaria ezarriko zaie ibilgailu historikoei edo gutxienez 30 urteko antzinatasuna dutenei, fabrikatu ziren egunetik kontatzen hasita.

5.- Diktaminatzen da **MANTENTZEA ETA EZ IGOTZEA** eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergari dagozkion tasak.

Indarrean segituko dute zerga hori arautzen duen ordenantza fiskalean ezarritako hobari guztiek.



6.- Ondoren zerrendatzen diren tasei aplikatzen zaizkien tarifak **IGOTZEA** diktaminatzen da:

- Kutxazain automatikoak eta bide publikotik irismena duten salmenta-makinen instalamendu eta funtzionamendua.

Finantza erakundeek edo gordailu-erakundeek fatxadetan kutxazain automatikoak instalatu eta funtzionamenduan edukitzeagatiko zerga-tasa urteko 450 eurokoa izango da.

Tasa honen b) atala bere horretan mantentzen da, aldaketarik gabe.

- Udal-kanpinaren erabilera.

Dagozkion tasak %1,1 igotzea diktaminatzen da, orokorrean.

7.- Diktaminatzen da ondoren zerrendatzen diren tasei aplikatzen zaizkien tarifak **MANTENTZEA eta EZ IGOTZEA**:

- Udal erabilera publikoko lurretan zangak eta hobiak irekitzea.
- Udal erabilera publikoko lurrak okupatzea. Ezarritako hobariak indarrean segituko dute, aldaketa honekin:

Tasen gutxieneko tarifa 27 eurokoa izango da.

- Ibilgailuak sartzea espaloian barrena eta bide publikoa erreserbatzea modu eskusiboan aparkatzeko, ibilgailuak geratzeko eta edozein motatako salgaien zabalenerako.
- Indar elektrikoa, ura, gasa edo beste edozein fluido garraiatzeko linea, hoditeri eta galeriak.
- Udal erabilera publikoko lurrak okupatzea, mahai, aulki, tribuna, oholtza eta antzeko beste elementuak erabiliz, irabazteko asmoa dagoenean. Ezarritako hobariak indarrean segituko dute. Nolanahi ere, terrazen ordenantza espezifikoak onartzen denean egokitu egingo da ordenantza fiskal hau.
- Bide publikoan kioskoak instalatzea.
- Udal erabilera publikoko lurretan postuak, barrakak, salmenta-guneak, ikuskizunak, atrakzioak eta horrelakoak instalatzea (kaleko industriak, industria ibiltariak eta zinema-filmaketak barne). Horretarako ezarrita dauden hobariak indarrean segituko dute, zehaztapen hauekin:
 - Zirkuak jartzeari eta telesailak grabatu edo filmatzeari eta antzeko jardueri dagokienez, Eusko Jaurlaritzaren edo Orioko Udalaren elkartearen erregistroan inskribatuta dauden irabazi asmorik gabeko udal-elkarteei edo



pertsona fisikoek ez dute erreferentziazko tarifarik ordaindu beharko —edo dagozkion hobariak aplikatuko zaizkie—, ez eta interes kultural-turistikoko entitateek ere, gaia dela-eta eskumena duen udal-batzorde informatzaileak hala diktaminatzen badu.

- Salbuespen gisa, Oriko Udalak zuzenean kudeatu ezin dituenean, energia elektrikoaren eta uraren harguneak, energia elektrikoaren kontsumoak eta okupazio-erabilerako antzeko jarduerak, Udalaren erabilera publikoko lurretan daudenek 30 €/eguneko gutxieneko tarifa ordaindu beharko dute.
- Trakzio mekanikoko ibilgailuak aparkatzea udalerriko bideetan, horretarako zehazten diren eremuetan, eta ezar daitezkeen mugekin, ekainaren 1etik irailaren 12ra arte, biak barne, astelehenetik igandera, 10:00etatik 20:00etara, Udalaren itsasgarri bat lortzeko aukerarekin, denboraldiko 60 € ordainduta, Oriko Antilla hondartzako aparkalekuan eta ondoko inguruetan trakzio mekanikoko ibilgailuak aparkatu ahal izateko uda aurretik eta udan. Kasu hauetako batean daudenek lortu ahal izango dituzte itsasgarriak:
 - Aian erroldatutakoak.
 - Orion lanean ari direnek.
 - Enpresaren ibilgailu bat erabiltzen dutenek, Orion erroldatuta baldin badaude. Kasu horretan, ibilgailu bakarrerako lortu ahal izango dute itsasgarria familia-unitate bakoitzeko.
 - Orion etxebizitza baten titular direnek, bertan erroldatuta ez egon arren.
- Bide publikoko lurzoru, lurpea eta hegalkinen erabilera pribatiboa eta aprobetxamendu berezia.
- Auto-taxien eta errentako gainerako ibilgailuen lizentziak eta baimenak ematea.
- Udal-administrazioak edo udal-agintariak norbaiten eskariz emandako agiriak. Tarifa hau aplikatuko da:
 - Udaltzaingoak atestatu-txosten bat egiteagatik: 80 €/unitateko. Atestatu-txosten hori postaz bidaltzen bada, 5.80 euroko errekgua ezarriko da.
- Lurzoruari eta antolamendu urbanoari buruzko legeek exijitutako lizentzia urbanistikoak ematea.
- Udal-hilerrian zerbitzuak eta kontzesioak ematea.
- Ibilgailuak geraraztea eta bide publikotik erretiratzea.
- Oriko Eguneko Zentroan ile-apaindegi zerbitzuak ematea.



- Jarduera-lizentzia ematea eta jardueraren eta instalazioaren funtzionamenduari buruzko ikuskapenak egitea.
- Arriskutsuak izan daitezkeen animaliak edukitzeko lizentzia ematea.
- Udal-pilotalekuaren erabilera eta Orioko Antilla hondartzako kabinen erabilera.
- Orioko Udal Musika eskolan egindako ikasketak
- Udal Kiroldegia erabilera
- Udak kiroldegiko garajeen erabilera.
- Kultur etxeko aretoen erabilera.
- Udalbatzarraren aretoaren erabilera.
- Azurza Etxeko tutoretzapeko apartamentuen erabilera
- Futbol/softbol zelaiaren erabilera. Tarifa hau gehitzea diktaminatzen da:
 - Bateo-tunelaren erabilera: 6 €/orduko. Orioko Bate Bizkorak kirol-elkarteak ez du tarifa hori ordaindu beharko.
- Iturriaga jauregian kokatutako Euskal Herriko Done Jakue Bidearen interpretazio-zentroaren erabilera.
- Udaletxeko teilatupeko gelaren erabilera.
- Tennis, paddle eta squasheko udal-pisten erabilera.
- Txu-txu trenaren erabilera eta publizitate-iragarkiak bertan jartzea.

Txu-txu trena ez dela alokatuko berresten da.
- Udalaren txosnaren erabilera.

Muntatu eta desmuntatzeko tarifa ez dela aplikatuko berresten da. 150 euroko fidantza eskatuko da eta, gainera, eskatzaileak materialean sortutako kalte guztiak ordaindu beharko ditu.
- Udalaren oholtzaren erabilera.

Muntatu eta desmuntatzeko tarifa ez dela aplikatuko berresten da. 150 euroko fidantza eskatuko da eta, gainera, eskatzaileak materialean sortutako kalte guztiak ordaindu beharko ditu.
- Mendibeltz futbol/sofbol zelaiaren azpiko garajeen erabilera
- Arraunetxeko instalazioen erabilera.



- Katea (KTA) eraikineko lokalen erabilera
- Salatxo udal-aretoaren erabilera.
- Udal-parrilen erabilera.
- Udal-ludotekaren erabilera.
- Arraunetxeko areto nagusiaren erabilera.
- Etxez etxeko zerbitzuaren erabilera.
- Orioko ostalaritza-establezimenduetan zarata-neurketaren erabilera.

8.- Kontuan hartuta 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera mankomunatu zela zaborrak eta hondakin solido urbanoak biltzeko zerbitzua, aplikatu beharreko tarifak Urola Kostako Udal Elkarteko Batzar Nagusiak ekitaldi ekonomiko bakoitzerako onartzen dituenak izango dira.

9.- Etxebizitzetara eta gainerako establezimenduetara etxeko eta industriako erabileretarako edateko uraren horniduragatik eta ur harguneengatik aplikatu beharreko tarifak Gipuzkoako Ur Partzuergoaren Batzar Orokorrak ekitaldi ekonomiko bakoitzerako onartzen dituenak izango dira.

10.- Orioko Udalak antolatutako ikuskizun eta emanaldietarako sarrerak ordaintzeko tarifa hauek onartzea diktaminatu da:

2 €-ko gutxienezko tarifa bat eta 10 €-ko gehienezko tarifa bat ordainduko dira. Dagokion udal-batzorde informatzaileak diktaminatuko du ekitaldi bakoitzaren tarifa, ikuskizuna edo jarduera antolatzeko aurrekontuaren arabera.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Ogasuna eta Pertsonala batzorde informatzaileak 2020ko irailaren 10 eta 22an emandako diktamenak ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA Ordenantza Fiskalen Aldaketari eta bere eranskinei, 2021eko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginarekin, erabaki honen azalpenean jasota dauden terminotan.

2.- JENDAURREAN JARTZEA erabaki hau eta hasitako espedienteak, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Aginduaren 16.1 artikuluan ezarritakoa betez, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udaletxeko iragarki taulan iragarkiari argitaratuz, arau hauen arabera:

a) Ikusgai dauden tokia: Udaletxeko idazkaritzan.



b) Espedientea aztertu eta erreklamazioak aurkezteko epea: 30 lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita; betiere, bulego-orduetan.

c) Erreklamazioa aurkez dezaketenak: Uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren 17. artikuluko zerrendan agertzen direnak.

d) Aurkezteko lekua: Udaletxeko Sarrera Erregistro Nagusian. Erreklamazioak aurkez daitezke, baita ere, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikulua zehazten dituen tokietan.

e) Zein organoren aurrean: Udalbatzarra.

Jendaurreko epea amaitu eta erreklamazio edo oharrik aurkeztu ez bada, hartutako erabakiak eta aldatutako ordenantzen eranskinak behin betikoak bilakatuko dira, beste erabakirik gabe.

3.- ONARTZEA, EGOKI BADA, APLIKATU BEHARREKO HOBARIK, UDAL-ERABILERA PUBLIKOKO LURRAK OKUPATZEAGATIKO TASARI DAGOZKIONAK.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Turismo, Merkataritza eta Ostalaritzako udal-teknikariak gaiari buruzko txostena egin du 2020ko irailaren 17an.

Alkateak hartzen du hitza eta adierazten du Udalak ez duela inolaz ere zalantzan jarri hobariak aplikatzea udal-erabilera publikoko lurra okupatzeagatiko tasei, baizik-eta, bakar-bakarrik, ezarritako lege-prozedurari jarraitu diola: aurrena gaia diktaminatzea dagokion batzorde informatzailean –hau da, Ogasuneko batzordean–, eta, ondoren, diktamena udalbatzarrerara ekarri, erabakia hartzeko.

Ingurumena, Obrak eta Zerbitzuak batzordeko buru Beñat Solaberrieta zinegotziak hartzen du hitza eta adierazten du batzordean udal-ordenantza bat lantzen ari direla terrazen erabilera arautzeko, kontuan hartuta Orioko ostalaritza-establezimendu guztien beharrak eta, lanketa horren ondoren ezarriko direla dagozkion tarifak eta kontzeptuak

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Ogasuna eta Pertsonala batzorde informatzaileak 2020ko ekainaren 22an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

ONARTZEA %95eko hobaria aplikatzea tasa honetan 2020. urtean: udal-erabilera publikoko lurra mahai, aulki, tribuna, oholtza eta antzeko elementuekin irabazi-asmoz okupatzeagatiko tasa.



4.- ONTZAT HARTZEA, EGOKI BADA, AITA LERTXUNDI KALEKO 44. ZENBAKIKO FINKARI (ONDASUN DEMANIALA) JATORRIZ ZEGOKION PADURA SANEATUKO LURSAILAREN JABETZA OSOAREN DOAKO LAGAPENA, ETA ALKATEARI AHALMENA EMATEA, EGOKI BADA, HORREN NAHITAEZKO ESKRITURA PUBLIKOA SINATZEKO.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Lursailak, egindako neurketa topografikoaren arabera, 481,37 metro karratuko azalera du, xede honetarako: lorategia eta erabilera publikoko pasealekua.

Hauek dira lursailaren mugak: Iparraldean, Oria ibaia; Ekialdean, Arin y Embil Sozietatearen lursaila; Mendebaldean, Mutiozabal ontziolari dagokion finka segregatua; Hegoaldean: jatorriko finkaren gainerakoa, Aita Lertxundi 44 eraikinari dagokiona.

Finka horren doako lagapenaren proposamenaren aurrekariak azaroaren 2ko 480/2016 alkate-dekretuan daude. Dekretu haren bidez, behin betiko onarpena eman zitzaion Aita Lertxundi 44 lursailaren xehetasuneko azterketari, M. Jose Mutiozabal Martinek, Arantxa Iñurrategik eta Jose Luis Arin Embilek aurkeztua eta AMAJIC Arquitectos SLPk idatzia. URA-Ur Agentziaren eta Gipuzkoako Kostaldeko Zerbitzu Probintzialaren txostenetan ezarritako baldintza guztiak bete beharko dira.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, azaroaren 2ko 480/2016 alkate-dekretuan ezarritakoa ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

- 1.- ONARTZEA** Aita Lertxundi 44 finkari (ondasun demaniala) jatorriz zegokion padura saneatuko lursailaren jabetza osoaren doako lagapena.
- 2.- AHALMEN ZABALA EMATEA** alkateari, dagokion eskritura publikoa sinatzeko Orioko Udalaren izenean.

5.- ONARTZEA, EGOKI BADA, 2020KO EUSKARALDIARI BURUZKO ADIERAZPEN INSTITUZIONALA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Adierazpen instituzionalak honela dio, hitzez hitz:

EUSKARALDIA 2020 · ADIERAZPEN INSTITUZIONALA

Euskaraldiak indar eta ilusio kolektibo berri bat piztu zuen orain dela bi urte, euskararen biziberritzearen esparruan. Euskal Herriko 225.000 lagunek hartu zuten parte ariketan; Orion, 1.487 lagunek. Horrez gain, Udalak ere Euskaraldia udal barruan sustatzeko erakunde-adierazpena onartu zuen, aho batez, 2018ko ekainaren 26ko udalbatzarrean.



Euskaraldiaren bigarren edizioaren atarian gaude eta Orioko Udaleko talde politikoek Udalaren parte hartzea bultzatu nahi dugu berriz ere. Udalak euskararen erabileraren eredu izan behar du herritarren aurrean eta, beraz, aurtengo Euskaraldiaren leloak dioen bezala, euskaraz INOIZ BAINO GEHIAGO, GEHIAGOREKIN ETA GEHIAGOTAN egingo dugu!

Euskaraldiaren bigarren aldi honek badu berritasunik. 2020an belarriprestei eta ahobiziei proposatuko die, 15 egunetan, beren egunerokoan egin dezaten ariketa. Baina, horrez gain, entitateek (erakunde, merkatari-ostalari, enpresa, elkarte...) euskaraz mintzatzeko gai diren hiztun-taldeak identifikatu beharko dituzte: ariguneak. Horrela, taldean ere hizkuntza-ohiturak euskararen mesedetan aldatzeko ariketa egin ahal izango dute.

Ariguneak dira euskaraz lasai aritzeko guneak, bertako kide guztiek euskara ulertu eta denek edo gehien-gehienek ariketa taldean egitea erabaki baitute. Entitatearen funtzionamenduan dagoeneko eratuta dauden taldeak edo espazioak dira, eta hizkuntza-praktikak euskarara aldatzea edo finkatzea dute helburu.

Euskaraldiaren xedeak bat datozen Orioko Udalaren helburu estrategikoekin: Euskaraldia tresna berritzailea da, lankidetzan oinarritua, herritarren hizkuntza-ohiturak aldatu eta euskararen erabileran urrats bat aurrera egiteko. Gainera, Udalaren hizkuntza-politika indartu eta sakontzeko aukera paregabea ematen digu Euskaraldiak, eta Udalak aukera horri erantzun nahi dio, eta bere aletxoak jarri, ekimenak arrakasta izan dezan.

Horrenbestez, Orioko Udalak hau adierazi nahi du:

- Orioko udalbatzarrak bat egiten du Euskaraldiarekin eta ekimenaren sustatzaile izango da. Erantzukizunez eta eredugarri jokatzeko konpromisoa hartzen du eta hamabost eguneko ariketa egingo du, 2020ko azaroaren 20tik abenduaren 4ra.*
- Ordezkarik politikoan egiteko nagusia izango da Euskaraldiaren markoan eta, bereziki, udal barrura begira ekimena zabaltzea.*
- Ekimen honetan ahalik eta ahobizi eta belarriprest gehien aktibatzeke urratsak emango ditugu, arduradun politikoak izan nahiz langileak izan.*
- Konpromisoa hartzen dugu kanpo- eta barne-ariguneak osatzeko, babesteko eta sustatzeko Udalaren barruan, hizkuntza-ohiturak finkatu eta egonkortzeko asmoz.*
- Neurriak hartuko ditugu hizkuntza-praktika horiek posible egiteko eta praktika horiei etorkizunean eusteko.*



- *Orioko Udalak, ekimenaren sustatzaile gisa, herritarrek gonbidatuko ditu Euskaraldian parte hartu dezaten eta izena emateko bideak erraztuko ditu.*
- *Geuk ere euskaraz egingo dugu, inoiz baino gehiago, gehiagorekin eta gehiagotan!*

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

ONARTZEA 2020ko EUSKARALDIari buruzko adierazpen instituzionala, goian jasota dagoen bezalaxe.

6.- ESKARIAK ETA GALDERAK.

Xabier Ibarguren zinegotziak hartzen du hitza, Kultura, Gazteria eta Festetako batzordeburua den aldetik, eta adierazten du, COVID-19ak eragindako pandemia dela eta, beharrezko neurri guztiak hartu direla 2020ko udaldian antolatutako kultur eta kirol ekitaldietan segurtasuna eta osasun publikoa bermatzeko. Horrez gain, adierazten du Orioko Udaleko kultura-departamentuak udaldian sustatutako jardueretara 14.000 lagun etorri direla eta, horri esker, Orio euskarazko kulturaren erreferente bat izan dela Euskal Herrian. Azkenik, adierazten du bide horretan jarraituko dutela, euskal kultura sortzen eta sustatzen.

Lourdes Salsamendi zinegotziak (EAJ) hartzen du hitza eta Xabier Ibarguren zinegotziari eskatzen dio Kultura batzordearen bilkura deitzea, ahalik eta azkarren, Udalak udan antolatutako kultur ekitaldien balantzea egiteko.

Azkenik, alkateak hartzen du hitza, Aritzaga kalea eta Herriko Plaza berrurbanizatzeko obretan zoladura jartzerakoan izan diren arazoei buruz herrian dabilzan zurrumurruak isilarazteko. Proiektuan aurreikusitako zoladura basaltozkoa zen eta Txinatik zetorren. Jartzen hasi zirenean, Udala konturatu zen ez zela hasieran enkargatutako material bera eta, gainera, akastuna zela eta mikrofisurak zituela. Udalak, gaia urgentziaz aztertuta, zoladura hura atzera botatzea erabaki zuen, teknikariek egindako txostenean oinarrituta. Udalak, ondoren, beste zoladura-mota bat aukeratu zuen uztailean, Extremaduratik datorrena, granitozkoa. Alkateak adierazten du Udalak badakiela obra luzatzeak endredoa eta eragozpenak sortu dituela eta barkamena eskatzen die herritarrei. Adierazten du, baita ere, espero duela obrak 2020ko abenduan bukatzea eta zoladura berria jartzen irailaren 28an hasiko direla.

Ez zen eskari eta galdera gehiagorik izan.

Horrenbestez, udalbatzarrerara bertaratutako pertsonetako inork hitza hartu ez duenez, alkateak eskerrak ematen dizkie etorritako guztiei eta bilkurari amaiera ematen dio.



ORIOKOU DALA



Erabakitakoa jasota gera dadin, nik, idazkaria naizenez, akta hau egiten dut alkatearen ontzat emanarekin.

ALKATE-PRESIDENTEA,

IDAZKARIA,